

# **GUIÓN LITÚRGICO**

**CAMPAÑA DE LA PASTORAL SOCIOCARITATIVA  
11 de marzo de 2018**

**“MIRA CON ESPERANZA AQUELLO QUE NO VEN LOS OJOS”**

**Otro mundo es posible**

## **Entrada:**

---

Bienvenidos a la celebración eucarística de este cuarto domingo de cuaresma. La Pascua está cerca. Estamos haciendo un camino desde la cruz a la gloria, asumiendo nuestra debilidad y agradeciendo la bendición Dios. Y en este contexto, la Pastoral Sociocaritativa de la Diócesis (Caritas, Pastoral de la Salud y Pastoral Penitenciaria) nos invita a, mirar la vida con los ojos del que es compasivo y misericordioso, así como el evangelio de Jesús, que nos propone, acoger el Misterio de un Dios que nos ama con amor gratuito y sin medida.

## Acto Penitencial

---

Reconozcamos que, no siempre nos dejamos curar, no siempre dejamos que Dios nos transforme, no siempre dejamos que la luz de Cristo nos ilumine:

- Dios de la vida, que pones en nuestras vidas personas y acontecimientos que nos muestran tu bondad y cercanía. **Señor, ten piedad.**
- Dios de la vida, que envías tu luz al mundo para disipar nuestras tinieblas. **Cristo, ten piedad.**
- Dios de la vida, tú que quieres que todas las gentes se salven y gocen de la vida plena. **Señor, ten piedad.**

## Monición a las Lecturas

---

Las lecturas de hoy nos introducen en el mundo de Dios. Un Dios que es constante y fiel a su proyecto de amor a todos. A pesar de nuestras infidelidades nos sigue regalando su palabra con los profetas y en Jesucristo, levantado en una cruz, nos ha dado la luz y la vida eterna. Que sepamos abrirnos a ellas y abrir espacios de esperanza en medio de este mundo.

## Apuntes para la Homilía

---

El pueblo de Jesús vivió dos grandes exilios, el de Egipto y el de Babilonia. Vivió la terrible experiencia de sentirse abandonados, solos, sin que a nadie les importara. Algo que hoy se repite, por desgracia, en países gravemente amenazados con guerras fratricidas y bárbaras. Pero nunca se sabe por dónde vendrá la luz.

De hecho es después del exilio cuando los judíos reflexionan más sobre su historia. Es después del exilio cuando se escriben o se compilan la mayoría de textos bíblicos. La primera lectura nos ha hecho un resumen de cómo fue este exilio en Babilonia, así como fue la liberación de manos de los persas. Se dan cuenta que Dios está ahí presente, en el dolor y en la alegría, vanda de donde venga, aunque venga de gente extraña. Es un Dios universal, que se vale de cualquiera para salvar, sanar y encauzar la vida.

Pero el peligro no sólo viene del exterior. Estando en casa, alejarse de la fe de los padres sigue presente en el pueblo. El exilio no es siempre geográfico, porque la existencia humana, en sí misma, es una existencia en exilio. Nunca estamos del todo allí donde deberíamos estar. Con mucha facilidad nos alejamos de casa, nos alejamos de lo que creemos, de lo que somos y de lo que nos convoca. El verdadero enemigo se encuentra cerca, muy cerca de nosotros. Es uno mismo el que se exilia.

El discurso de Nicodemo va en esta dirección. Por más que el amor de Dios quede oscurecido, Dios ama al mundo hasta el extremo. La gran prueba es el regalo de su Hijo, por muy alejados que estemos nosotros, Él está con nosotros. Él es nuestra verdadera esperanza. Hay que mirar como dice el lema de este año, con esperanza. Mirar con esperanza aquello que no ven tus ojos. No se trata de éxito. No se trata de buena voluntad. Tampoco se trata de recursos. Se trata de mirar la cruz de Cristo y ver cómo el amor ha vencido al odio, a la muerte y al naufragio de los humanos.

Estamos llamados a responder al amor de Dios. No es que nos pida nada, sino que se trata de que lo recibimos todo y somos nosotros los que experimentamos el bien de ser queridos y, por tanto, no podemos más que hacer el mismo bien amando como respuesta nuestra a todos los que lo necesitan. Podemos encender pequeñas luces en medio de la oscuridad. Pequeñas pero humanas luces, sencilla como el dar un vaso de agua al

sediento, una sonrisa al que todos desprecian, la mano a quien nadie se acerca ni abraza. Esto es la Pastoral sociocaritativa e la cotidianidad de nuestra vida de fe.

Cada vez que intentamos algo de todo eso, haciendo que nuestro entorno sea más agradable, estamos colaborando con este Dios nuestro que nos ama tanto. La salvación en la que creemos no es una salvación que cae del cielo. Es una salvación que se ha hecho carne, que se ha hecho humanidad en Jesús, hombre como nosotros y, en todos los que hacen de su vida, una vida para los demás. Una vida para y con los enfermos, los presos, las víctimas de las guerras, de las violencias, las hambrunas, las injusticias más bárbaras que siguen asolando este mundo. Creemos que otro mundo es posible.

## Oración de los fieles

---

Invoquemos la misericordia de Dios sobre todos los hombres y mujeres de la tierra.

- Por la Iglesia. Que sea siempre signo y realización del amor de Dios para toda la humanidad. **Roguemos al Señor.**
- Por los cristianos que viven en países en los que son perseguidos. Que la pasión de Cristo les dé fortaleza en su sufrimiento. **Roguemos al Señor**
- Por los enfermos, moribundos, pobres, refugiados, abandonados. Que nuestro compromiso de vida sea un aliciente para ellos. **Roguemos al Señor.**
- Por los que hoy nos hemos reunido aquí para celebrar el memorial del Señor muerto y resucitado. Que seamos renovados y fortalecidos por el amor de Dios. **Roguemos al Señor.**

Escúchanos, Señor, Jesús, y ten piedad de nosotros y del mundo entero. Tú, que vives y reinas por los siglos de los siglos. Amén.

## **Despedida**

---

En la Pastoral Sociocaritativa desde Caritas, la Pastoral Penitencia y la Pastoral de la Salud, nuestra Iglesia trabaja por la justicia y la paz pero, sabemos que, el amor es mucho más, el amor supera ese mínimo necesario de dar a cada uno lo suyo, lo que se le debe por derecho. Nosotros somos una comunidad de vida cristiana que nos dejamos iluminar por el amor de Dios en Cristo Jesús, que hoy gozosamente acabamos de recibir y celebrar en la Eucaristía que terminamos, disponiéndonos para la próxima Pascua.

## **LITURGIA-GIDOIA**

### **SOZIOKARITATEZKO PASTORALTZAREN KANPAINA 2018ko martxoaren 11**

**“BEGIRATU ITXAROPENEZ BEGIEK IKUSTEN EZ DUTEN HARI”**

**Beste mundu bat osa dezakegu**

#### **Sarrera:**

---

Ongi etorri garizumako laugarren igande honetako eukaristia-ospakizunera. Pazkoa gertu dago. Gurutzetik loriarako bidea egiten ari gara, gure ahultasunaz jabetuz eta Jainkoaren bedeinkapena eskertuz. Eta, egoera horretan, Elizbarrutiko Soziokaritatezko Pastoraltzak (Caritas, Osasun Pastoraliza eta Espetxe Pastoraliza) gonbita zabaltzen digu bizitzari errukiorra eta gupidatsua denaren begiekin begiratzeko, Jesusen ebanjelioak bezala, hark proposatzen baitigu doako eta neurririk gabeko maitasunez maite gaituen Jainko baten Misterioa gure baitan hartzeko.

## Penitentzia-ekintza

---

Aitor dezagun ez dugula beti uzten senda gaitzaten, ez dugula beti uzten Jainkoak eralda gaitzan, eta ez dugula beti uzten Kristoren argiak argi gaitzan:

- Bizitzaren Jainkoa, gure bizitzan zure ontasuna eta gertutasuna erakusten diguten pertsonak eta gertaerak jartzen dituzun hori. **Erruki, Jauna.**
- Bizitzaren Jainkoa, gure ilunpeak uxatzeko, mundura zure argia bidaltzen duzun hori. **Kristo, erruki.**
- Bizitzaren Jainkoa, guztiak salba daitezen eta bizitza osoaz goza dezaten nahi duzun hori. **Erruki, Jauna.**

## Irakurgaiei buruzko oharra

---

Gaurko irakurgaiek Jainkoaren munduan sartzen gaituzte. Alegia, guztiak maitatzeko bere proiektuari egonkor eta fidel eusten dion Jainko baten munduan. Gure fede-hutsegiteak gorabehera, profeten bidez bere hitza oparitzen jarraitzen diguna eta, gurutze gainera igotako Jesukristoren bitartez, argia eta betiko bizitza eman dizkiguna. Jakin dezagun horietara irekitzen, eta mundu honen erdian itxaropen-espazioak sortzen.

## Sermoirako oharra

---

Jesusen herriak bi erbestealdi handi bizi izan zituen, Egiptokoa eta Babiloniakoa. Abandonaturik, bakarrik eta inori axola gabe sentitzearen esperientzia ikaragarria bizi izan zuen. Zoritxarrez, egoera hori gaur egun ere errepikatzen da, gerra senide-hiltzaile eta barbaroen mehatxu larria pairatzen duten herrialdeetan. Baina inoiz ere ezin da jakin argia nondik iritsiko den.

Hain zuzen ere, erbestealdiaren ondoren egin zuten juduek gogoeta gehiago haien historiaz. Eta erbestealdia bukatu ondoren idatzi edo bildu ziren testu bibliko gehienak. Lehen irakurgaiak Babiloniako erbestealdia nolako izan zen laburbildu du, eta persiarrek nola askatu zituzten. Orduan konturatu ziren Jainkoa hor dagoela, minean eta zorionean, datorren tokitik datorrela, nahiz eta kanpotarren eskutik iritsi. Jainkoa unibertuala da, edonor baliatzen du bitzta salbatzeko, osatzeko eta bideratzeko.

Baina arriskua ez da kanpotik etortzen soilik. Etxean egonik ere, gurasoen fedetik aldentzeko grinak herritarrengan dirau. Erbestealdia ez da beti geografikoa, izan ere, giza existentzia, bere horretan, erbesteko existentzia da. Inoiz ere ez gaude, guztiz, egon beharko genukeen tokian. Erraztasun handiz aldentzen gara etxetik, sinisten dugunetik, garenetik eta deitzen gaituen horretatik. Benetako etsaia gugandik gertu dago, oso gertu. Norberak erbesteratzen du bere burua.

Nikodemoren hitzak ildo horretan doaz. Jainkoaren maitasuna iluntzen bada ere, Jainkoak muturreraino maite du mundua. Horren froga handia bere Semea oparitu izana da; gu oso urruti bagaude ere, Hura gurekin dago. Bera da gure benetako itxaropena. Aurtengo goiburuak dion bezala, itxaropenez begiratu behar da. Begiratu itxaropenez begiek ikusten ez duten hari. Ez gara arrakastaz ari. Ezta borondate onaz ere. Ez da baliabideen kontu bat. Gakoa da Kristoren gurutzera begiratzea eta ikustea nola maitasunak irabazi duen gorrotoaren, heriotzaren eta gizakien hondoratzearen gainetik.

Jainkoaren maitasunari erantzutera deituta gaude. Ez digu ezer eskatzen, ordea; guztia jasotzen dugu, eta guk, maitatuak izatearen ontasuna bizi dugunez, ontasun hori bera egitea beste aukerarik ez dugu, eta beharrezana duten guztiak maitatuz erantzuten dugu. Iluntasunaren erdian, badugu argi txikiak pizteko aukera. Argi txiki baina gizatiarrak, soilak, egarri denari baso bete ur, guztiek erdeinatzen dutenari irribarre bat, edo inor



gerturaten ez zaionari edo inork besarkatzen ez duenari besarkada bat ematea bezala. Horixe da Soziokaritatezko Pastoraltza eta gure bizitza fededuneko egunerokotasuna.

Horrelakorik egiten saiatzen garen bakoitzean, gure ingurua atseginago bilakatuz, hainbeste maite gaituen Jainkoarekin batera lan egiten dugu. Sinesten dugun salbazioa ez da zerutik eroriko. Salbazio hori haragi bilakatu da, gizaki bihurtu da Jesusen bitartez –gizakia, gu bezala–, bai eta haien bizitza besteentzako bizitza bilakatzen duten guztien bitartez ere. Bizitza gaixoei eta gaixoentzat ematen dutenak, eta presoentzat, eta gerren, indarkeriaren, gosetearen eta mundu hau hondatzen jarraitzen duten bidegabekeria barbaroenen biktimentzat. Beste mundu bat osa dezakegu, bai.

## **Fededunen otoitza**

---

Eska dezagun Jainkoaren errukia lurreko gizon eta emakume guztientzat.

- Elizararen alde. Jainkoak gizadi osoari dion maitasunaren zeinua eta gauzatzea izan dadila beti. **Eska diezaiogun Jaunari.**
- Jazarpena pairatzen duten herrialdeetan bizi diren kristauen alde. Kristoren pasioak indarra eman diezaiela, haien pairamenean. **Eska diezaiogun Jaunari.**
- Gaixoen, hiltzear daudenen, pobreen, errefuxiatuen eta abandonatuen alde. Gure bizitzaren aldeko konpromisoa eragingarria izan dadila haientzat. **Eska diezaiogun Jaunari.**
- Kristo hil eta piztuaren oroitzapena ospatzeko hemen bildu garenon alde. Jainkoaren maitasunak berritu eta sendotu gaitzala. **Eska diezaiogun Jaunari.**

Entzun, arren, Jauna, Jesus, eta izan gure eta mundu osoaren erruki. Zu, errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

## **Agurra**

---

Soziokaritatezko Pastoraltzan, Caritasekin, Espetxe Pastoraltzan eta Osasun Pastoraltzan, gure Elizak justiziaren eta bakearen alde lan egiten du betiere, baina badakigu maitasuna askoz gehiago dela, maitasunarekin gainditu egiten dela bakoitzari berea, legez dagokiona, emateko minimoa. Gu bizi-komunitate kristau bat gara, amaitzera doan Eukaristian poz handiz jaso eta ospatu berri dugun Kristoren argiak argitu gaitzan uzten duguna, iristear den Pazkorako prestatuz.